

EUSKAL AUTESKUNDEAK: EZUSTEKO BARRIAK

Urrillaren 23'ean gabeko amar ta erdietan, gitxi gorabera, Juan M^a Atutxa kontseillariak azken emoitzak baieztatu ebazanean, keiñu ezbaridiñak ikusi eitekezan politikarien arpegietan: alai eta illunak; baiña egoera oneitan jazoten dan lez, danak baikor agertzen ziran izparkarien aurrean, gurutzbide edo kalbarioa barrutik ba joian be.

Azken auteskunde oneitan gauza batzuk baieztatu egin dira eta beste batzuk, oster, ustebakotzat jo leikez. Edozelan be, guztien gañetik, autarki edo botoaren sakabanaketa izan dogu albiste nagusia.

Europar Legebatzarrerako egin ziran auteskundeez alderatuta, alderdi espaniñaleak lortutako autarki edo botoen kopurua indartu egin dan bitartean, (P.P., U.A., eta, batez be, Ezker Batuarena) alderdi abertzaleena naikoa bestelakoa agertu jaku: Eusko Alderdi Jeltzaleak nagusi darrai, autarkietan gorakada txiki bat izan daualarik, baiña alde-aurretik uste eben baiño gitiago; Carlos Garaikoetxea'ren Eusko Alkartasunari emoitz txar-txarrak iragarten ba eutsoezan be, ez da orrerlan gertatu eta egoera latz eta baltz orretatik ondo urten duala esan leike, jarleku bat galdu arren be. Eta azkenez, H.B. alderdiak izandako berakada albiste izan dogu. Beraz, ez dago esaterik ondo dabiltzanik bertoko alderdiok.

Baita be, P.S.E.-P.S.O.E.-E.E. alderdiak izan dauan porrota egundokoa izan dala aitatu bear, ezelango ezpai barik. alderdi Sozialistaren inguruan albiste izan doguzan ustelkerizko jazoerak eta barruko naste-borrasteak be, eragin aundia izan dabe euren boto-emoilleen artean, Ezker Batuari euren botua emotea naiago izan dabenak. Ortik azaldu lei, azken alderdi onen gorakada. Edozetara be, porrota itzela eta uka-eziña izan da sozialistena.

Alderdi Popularrak, bere aldetik, baieztatu dauz Europako Legebatzarrerako lortu zituan emoitzak eta baikortasunez beterik dagoz etorkizunari begira, datorren urteko Udal Auteskundeai, alegia. Eta, batez be, Dostin boturik geien lortu dauan alderdia izan ondoren. Or dauke urrezko aukerea euren gorakada sendo tinkatzeko.

Eta zer esan U.A. eta Ezker Batuari buruz?

Gorago esan dogun legez, Esker Batuak emoitz bikain ori lortu baldin ba dau, zati aundi baten, Sozialis-

tengan euren itxaropena ipiñi eta guztiz lur jota geratu diranai zor dautse; eta aditu guztiak bat datoze eretxi ontan. Orain zer egingo dauan alderdi onek, ikusi egin bearko.

Eta U.A. alderdiagaz egin dogu topo. Au dogu gure Euskalerrri maiteari agertu jakon mamua. Pablo Mosquera buru daualarik alderdi au jo ta ke jabilku Araba Euskalerritik atara gurarik, bere kideen ustez guztiz baztertuta dagolako lurralde au. Orrez gain, Euskerea, izkillo edo arma bezala erabiliz, Arabatik aldendu egin gura dau iñork ez darabilleenaren aitzakiz. Buruauste larria, beraz, Araban izan eta ukatzerik ez dagona. Gogoan euki bear dogu, baita, auteskunde oneitan, Arabako errietan gauza aundirik lortu ez baldin ba eban be, Gazteizen, Arabako uriburuan, nagusi gertatu zala eta orrek zer pentsaturik emoten dau, Gazteiztar eta Arabar askoren pentsakera ordezkatzan dau-ta.

– Jaurlaritza barria, noizko?

Len esan dogu auteskunde bi oneitan, autarki edo botua oso sakabanatua izan dogula. Orren ondorioz, alderdi geiago sartu dira Ajuria Eneara eltzeke leian eta orregaitik askoz gatzago egiten dau orrek lendakari eta jaurlaritza bat autatzea.

Negoiaziañoak, alkarrizketak, alderdien arteko batzarrak egiten ari dira, baiña ez da erreza izango akordu bat lortzea. Lengo Legealdian Eusko Alderdi Jeltzaleak eta sozialistak geiengo nagusia lortu ebela, bien artean 38 jarleku, gogoratu bear dogu baiña orain, sozialisten porrota dala-ta irugarren alderdi baten bearra dabe eta or dago untzea. Nogaz egin?

Orretan dabilz, eta lerro oneik egiteko orduan, Eusko Alderdi Jeltzaleak, Alderdi sozialista eta Eusko Alkartasuna agertzen ziran Eusko Jaurlaritza barria osoztzeke albiderik geienak zituen alderdiak bezala. Gogorra izango da, baiña, euren artean alde aundiak diralako.

Denborari denbora emonaz Jaurlaritza barriaren zain jarraitu bearko. Itxaronaldi onek ekarri dagiala Jaurlaritza zuzen eta sendo bat gure Euskalerrri maite onek dituan arazo ugariak konpontzeko.

**1994ngo Azillaren 14an.
MALAX-ETXEBARRIA TAR YON**